

noaia

Erakusleiko berria dute
herriko saltokiek
www.hurbilago.com

Haurren txokoa,
igande honetako
Santo Tomas azokan

NOAIA! honekin batera,
2014ko egutegia eta
Gabonetako gehigarria



Amagoia Mujikak idatzi du Pirritx,
Porrotx eta Marimotots pailazoen liburua

“Niretzat opari bat izan da”



MAUXAREN DENDA

(M. Luisa Sambade)

943 100 275 Pablo mutiozabal 1, LASARTE



URDAIRA

Sagardotegia

Abenduak 21 **BARRIKOTEA**
20.00h Urdairan
 astelehenak itxita

Aginaga 943 37 26 91



Otar-Goxo

E l i k a g a i a k

Hirukide
 Hirukide elkarteko kide diren
 familientzat... %5 EROSKETA GUZTIAN!

**Gabonetako berezitasunak
 eta otarrak prezio ezin hobean**

merkalitatea
hurbilag

Harategiko berezitasunak	Urdaitegiko berezitasunak	Etxeko berezitasunak	Fruta dendakoak
Txahial azpizuna	Foie frexkoa	Kroketa bereziak	Ananak
Behi azpizuna	Ahate konfita	Onddo krepak	Gaztainak
Esneko arkumea	Mikuik	Txipiroi krepak	Mahatsa
Txerrikumea	Pate ezberdinak	Arrain budina	Orejoiak
Antxumea	Txatka naturala	Piper budina	Kiwiak
Kapoia	Izokina	Piper beteak	Bertako barazkiak
Pularda, ehiza,	Olagarro egosia	Gabonetako berezitasunak	Fruten selekzioa
Rosbeef, entrekota (1kg)...	Iberiko aukera zabala		

Zubiaurrenea, nº2 • 943 36 55 81 • 20170 Usurbil

Albisteak iruditan

Erakusleirio berria dute herriko saltokiek: hurbilago.com

Saltoki bakoitzak bere web gune propioa sortzeko zailtasunak izango zituela jakinik, elkarlanean gainditu dute sarera jauzi egiteko zuten oztopoa; Hurbilagoren atari berriarekin. Herrira eta mundura ireki da orain, Usurbilgo merkataritza eta ostalaritza. Abaraska enpresak diseinatu duen hurbilago.com atari berriari esker.

Web orri bizi izatea nahi dute Hurbilagokoek. Atariari dinamikotasuna emango dioten zenbait atal izango dute, albisteena esaterako. Sektoreko berriak jasoko ditu tarteak, baita Hurbilago Elkartek bideratzen dituen ekimenen inguruko informazioa ere; hala nola, Tipi-Tapa edota San Silvestre Herri Lasterketari buruzkoa. Abenduaren 31n ospatuko den ekimenarako izena emateko aukera dago hain zuzen, martxan jarri berri duten atarian. Honez gain, saltokien inguruko informazio eguneratua aurkitu ahal izango da; nor zer eskaintzen duen,



San Silvestre lasterketako izen-ematea egin daiteke webgune berrian.

kokapena, ordutegia... Eta Hurbilagori loturiko atalak ere baditu noski, jada sarean bisita daitekeen web orriak; elkartearen eskaintza eta promozioen berri, Hurbilago Txartela nola eskuratu eta abantailen inguruko zehaztasunak...

Sare sozialetarako lotura ere badu web guneak. Hori baita erronka, hur-

bilago.com atari bizi izatea. Albisteak, Facebook edota Twitter bidez zabaldu asmo ditu Hurbilagok, bereziki belaunaldi berriengana heldu nahi baitute.

Salerosketetarako, saltokietara

Parte hartzea sustatu nahi duen atari berria dugu hurbilago.com. Hurbi-

lagoko bazkide bakoitzak bere profila eta nork bere informazioa eguneratu ahal izango du. Elkartearen inguruko gorabeheren berri jasotzeaz gain. Bada ordea atari berriak eskaini nahi ez duten zerbitzu bat; web orri bidezko salerosketarik ezingo da egin. Bezeroak saltokietara erakartzeko atari izateko jaioa baita hurbilago.com. Ez bezeroak saltokietara joateari utzi eta saretik salerosketak egitera bultzatzeko gunea. Beraz animatu, web orri bidez Hurbilagoko berri jaso, eta gero erosketak egitera herriko dendetara.

Otarraixka pintxoak, urtarilaren 5eko Tipi-Tapan

Errege egun bezperan ospatuko da 2014ko lehen edizioa, urtarilaren 5ean. Otarraixkarekin eginiko moka du bereziak dastatu ahal izango dira, edari eta guzti 2 euroren truke, Xar-ma, Artzabal, Txapeldun, Bordatxo, Txirristra, Aitzaga eta Txiriboga tabernetan.

Laburrean

Mikel Laboa plazako lanen bigarren fasea, jaien bueltan

Lanok egiteko esleipena gauzatu du jada Usurbilgo Udalak. Altuna y Uriá, S.A. enpresa arduratuko da Mikel Laboa plazatik Etxebeste kale alderako sarbide inguruko lanez. Gunea oinezkoentzako egokitzeko obra hauek gabonen ostean hastekoak dituzte, Udaletik esan dutenez.

Bidali Inauterietarako zuen proposamena

Martxoaren 1ean ospatuko dugun Inauteri Fes-tarako gaia zuen esku oraingoan. Zertaz moztu nahi zenukete? Ideiaren bat baduzu, bota lasai. Bidali zuen proposamenak elkartea@noaua.com helbidera, edota 943 360 321 telefonora deitu edo egoitzara ekarri.

Hezkuntza sistema propioaz, ostegunean Sutejin

"Publiko, pribatu...? Hezkuntza sistema propioa: geure estatuaren beharra" izeneko hitzaldia antolatu du Nafartarrak taldeak ostegun honetarako, abenduaren 19rako 19:00etan Sutejin. Naroa Anabitarte arituko da hizlari lane-tan.

noaua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 // elkartea@noaua.com // www.noaua.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herra!

Elkarteko lehendakaria:
Ana Aizpurua.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Aizpea Aizpurua.
Publizitatea: Bea Alda,
publizitatea@noaua.com.
Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,
erredakzioa@noaua.com:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,
Aizpea Aizpurua.
Banaketa: Olatz Rezola, Arantxa Zulaika.
Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Aina

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieto, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,
Jon Etxabe, Alazne Begiristain,
Denis Elortza, Pello Aranburu,
Xabier Aranburu, Inma Balda,
Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,
Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.
Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Joxe eta Idoia Torregarai

(Testu hau aitari jasotakoa da)

Gabonak datozen honetan, egun hauekin oso lotuta egon den ohitura baten berri eman nahiko nizueke. Abendua txerriak hiltzeko garaia da, eta behintzat Usurbilen (eta Euskal Herriko beste hainbat tokietan ere) egun handia izaten zen hura. Izan ere, herriko baserri guztietan hiltzen ziren txerriak. Baserriarrek kapoiak, oilaskoak eta batez ere txerriak hazten zituzten gero gabonetan hauekin festa handia egiteko.

Honek ordea, lan asko zekarren berarekin, txerria hiltzeko abilezi handia behar baita. Nik hau nola egiten zen laburtzen saiaturiko naiz, lan horretan nahikotxo ibilia bainaiz. Goizeko seiretan halako baserrira iritsi eta gero, bertako etxeoandreak kafea eta anis kopak prestatzen zizkigun (azken hauek beldurra kentzeko ziren, antza), eta horiek hartu ondoren hasten zen festa. Ilbeheran egin behar zen, noski. Ondoren, hiruzpalau gizaseme lanean hasten ginen. Horietako bik txerria eusten

Txerrimuinak ordainetan

zuten hanketatik (batzuetan hiru-garren bat ere isatsetik tiratzen zuten) eta azkenak hiltzen zuen txerria. Bataz beste 120/130 kilo pisatzen zuten. Txerri-hiltzaileak gantxoa txerriaren kokotzetik sartu, gero txerria mahai gainera bota eta labanarekin lepoan zulo txiki bat egiten dio odola ateratzeko. Odola bildu ondoren (odolkiak egiteko) txerria erre egiten genuen otearekin (nahiz eta nik nire aitona txerriak lastoarekin erretzen ezagutu nuen). Gero zutik jarri karreran (egurrezko makila), txerria garbitu eta arratsaldean edo ilunabarrean txerria partitu egiten zen. Lehenik xolomo txikiak, gero handiak, gero urdaiazpikoak... Eta horrela txerria txerrimuinak partitzeko moduan geratzen zen, hau da, ingurukoei txerriaren zatiak eskaintzen zitzaizkien azaren orrian bilduta, opari gisa. Txerri-hiltzaileari ere jenerotan ordaintzen zitzaion.

Usurbilen bat baino gehiago ziren txerriak hiltzen zituztenak. Emakumezko bat ere ezagutu nuen, Lasartekoa bera. Baina nire aitona, Deme-

trio, hiltzen zituen gehienak. Kaxkoa, Zubieta, San Esteban eta Aginako baserri askotatik deitzen zioten txerria hil eta odolkiak egiteko. Hortik zetorkion "Demetrio zerri" ezizena. 4.000 txerri baino gehiago hilko zituen 40 urtetan. Niri afizioa berak sartu zidan. A zer nolako maixua! 16 urterekin hasi nintzen lan honetan berarekin eta duela 18 urte hil nuen azkenekoa. Nire marka, hala ere, urruti geratzen da aitonarengatik, 500 txerri hilko bainituena guztira.

Hainbeste txerriren artean, gaur bitxiak ere gertatu zitzaizkigun, bai aitonari eta bai niri. Behin 360 kilo baino gehiago zituen zerrama bat hil behar izan nuen. Hemen alferrik zen hanketatik eustea, txerria sokaz lotu behar izan genuen hiltzeko. Bestetik, Demetrioni gertatutako pasadizoak asko badira ere, bada bat oso maitea dudana:

Txerri bat hiltzeko deitu zioten batean, baserriko etxeoandreak hala esan omen zion:

-Demetrio, txerria hilda dago!

-Txerria hilda dagoela?

-Baietz ba, hilda dagoela!

-Ondo da, esan non dagoen.

Joan omen ziren txerritikira eta etxeoandreak esan bezala, hantxe zegoen txerria, lurrean botata, zirkinik egin gabe. Orduan Demetrion, animalia begiratu ondoren zera esan omen zuen:

-Gaurkoagatik utzi egingo dugu.

-Nola gaurkoagatik?—esan zuen etxeoandreak.

-Txerri hau mozkortuta dagoelako.

Kontua zen aurreko egunean baserrian sagardoa jozutea, eta txerriari bertan sobratutakoa eman ziotela jateko. Eta noski, txerriak izugarrizko "legatza" harrapatu!

Gaur egun berez legea dela eta ezin da txerria etxean hil. Usario hori galtzea izugarrizko galera dela iruditzen zait, txerri hiltzea egun handia eta zeremonia izugarria zelako. Eta niretzat, horretaz gain, aitonarekin lotzen ninduen soka.

Aritz Gorriti | Luken Arkarazo | **Idoia Torregarai** | Luis Aranalde | Maialen Unanue | Nerea Zinkunegi | Imanol Ubeda | Joxe Piñas

Zero Zabor norabidean sakontzeko borondatea

Usurbil, Andoain, Astigarraga, Donostia, Hernani eta Lasarteko alkateek adierazpen instituzionala plazaratu zuten hedabideen aurrean iragan abenduaren 13an. Zubietan kokatu asmo zegoen azpiegitura erraldoia bertan behera geratu izana txalotu zuten, proiektu hau gauzatu izan balitz, eremu arriskuan egongo ziren udalerrietako alkateek.

Herritarrek zoriondu nahi izan zituzten lehenik, "errauste plantaren mehatxua desagertu egin delako". Gaineratzen zutenez, "herritarren konpromisoari esker, errauskailua ez da beharrezkoa izango, ez Zubietan ez inon". Hondakinak tratatzeko planta hau iraganeko kontua da jada, alkateok gogorarazten zutenez. Eta orain ireki den aro berriaren aurrean, Zero Zabor norabidean aurrera-



Mertxe Aizpurua alkatea, inguruko udal ordezkariekin batera.

pausoak emateko konpromisoa hartzen dute udalerrietako alkateek. Baina bide horretan ezinbestekotzat jotzen dute herritarren laguntza, "denon artean lortzen ari garen guztia ezinezkoa izango litzateke baldin eta herritarrek bere etxean, egune-ro, gaikako sailkapenarekin duzuen konpromiso txiki hori gabe". Horrengatik, horretan, hondakinak ardurasu sailkatzen jarraitzeko deia luza-

tzen diete, errauste planta bertan behera geratu ostean garaileztat jotzen dituzten herritarrei.

Kaltegarria, eta beharrezkoa ez Hondakinak erretzeko aroa itxita, herritarrek atera dira eta garaile, alkateon esanetan. Herritarren osasuna eta ingurumena, toxikoa izan-go zela nabarmentzen zuten proiektu honen kalteak saihestu direlako.

Eta herritarren poltsikoak ere irabazle atera dira errauste planta bertan behera utzita, "proiektu osoa 400 milioikoa izanik, jasan ezina zen gure ekonomiarako". Jasan ezina bakarrik ez, beharrezkoa ere ez zela zioten, errauste plantarako behar adina hondakin ez baititu sortzen Gipuzkoak eta, gainera, 2020rako birziklatu daitekeen ezer ezingo baita erre.

Ucineko keak

Eusko Jaurlaritzak Ucini eman dion ingurumen baimen bateratu berria hartu zuten ahotan, Udalak Potxoenean deituriko hitzorduan bildu zirenek. Eta baimen honek duen eraginaz ere jardun zuten. Arazoak konpontzeko jarraitzen duen arren, kostata baina arazoan konponbidean aurrerapausoak ematen ari direla diote.

Eskubide sozialen aldeko lanketa abian

Eskubide sozialak defendatuko dituen herri mugimendu berria du Usurbilek. Euskal Herriko Eskubideen Karta Soziala eratzeke lanari ekingo dion herritarren bilgune berria. Etengabe urratzen ari diren hainbat eskubideren aurrean, egoera iraultzera datoz; elkar-lanean "herritarren eskubideak erdigune izango dituen herri baterantz bidea urratzen hastera goaz", iragarri zuten iragan ostiralean frontoian egin zuten jendaurreko aurkezpenean.

Usurbildarrei bide horretara batzeko deia luzatu zitzaion. "Herritarroi gonbita luzatu, prozesua zuona egin eta parte hartzeko", adierazi zuten. Aipatu bide hau jorratzeko hain zuzen, parte hartze prozesua abian dute jada. Astearterako zuten iragarria, lehen batzarra. Prozesuan zehar, eskubideen inguruko eztabaida bideratu nahi dute, eta gero eskubide horiek betearaztea exijitu asmo dute, "eskubideok bermatzeko tresnak sortuz".

Eztabaida prozesua lau espa-



Aurreko asteburuan aurkezpena egin zuten frontoian.

KARTA SOZIALA

"Herritarren eskubideak erdigune izango dituen herri baterantz bidea urratzen hastera goaz"

rrutan banatu asko dute; gazteak, emakumeak eta pentsionistak batetik. Eta falta den laugarren esparrua, batzar orokorra litzateke, "sektore, eragile, nahiz norbanakoen ekarpenak jasoko direnak". Denetari-ko gai sozialak jorratuko dituzte; lurralde eta ingurumen eskubideak, lanari lotutako esku-

bideak, eskubide ekonomikoak, eskubide sozialak, bizitzaren mantentzea, parte hartzea, emakumeen indarkeria ezarako eskubidea, jatorri aniztasuna, aniztasun funtzionala, hizkuntza eskubideak edotasun aniztasun sexuala.

ESKUBIDE URRAKETA ADINA ARLO

Argi dago, bada zer landua. Jendarteak pairatu behar dituen eskubide urraketak egunerokoak diren seinale, frontoiko aurkezpen ekitaldian nabarmentzen zuten moduan. "Herritarrok eskubide urraketa etengabea pairatzen ari gara fi-

nantza krisiaren aitzakiarean. Langabezia tasa igotzen ari da, pentsioak murrizten, zerbitzu sozialak murrizten eta horrekin, emakumeak publikoak izateari utzi dioten hainbat zerbitzu betetzera etxetara bideratzen, gazteok gurasoen magaletatik irtetea geroz eta zailagoa dugu, eta hezkuntza kalitatea ere kaltetzen ari da. Esandakoa, aipatutako urraketa eta murrizketek, gure eskubide sozialen murrizketaren isla dira", adierazi zuten.

GUTUN SOZIALA ERATZERA

Testuinguru honetan sortu da hain zuzen herri mugimendu berria. Egoera honi aurre egiteko, eskubide sozialen inguruko eztabaida bideratuko dute, abiatu berri den parte hartze prozesuaren bidez. Eta eskubideon inguruan hitz egin bakarrik ez, eskubideok betearazi eta bermatzeko tresnak ere landu asmo dituzte. Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta eratzeraz doaz.

Informazio gehiago:

eskubidesozialenkarta.com

Jaialdia abenduaren 29an, erraustegiari agur esateko

Urte luzez "gipuzkoarren osasuna, ingurumena eta ekonomia mehatxatu dituen proiektu toxiko horrenak" egin duelako, erraustetaren aroa itxi eta Zero Zabor aroa abian dela ospatzeko jaialdia antolatu du Gipuzkoa Zero Zabor eta herrialdeko zero zabor taldeek, abenduaren 29rako Usurbilen.

"Nik ere erraustegia gelditu dut" izena jarri diote urteko azken igandean ospatuko den ekimen bereziari. Eta ez alferrik. Eragileok urteotan bidelagun izan dituzten herritarrekin ospatu nahi baitute, errauste planta proiektua behin betiko bertan behera gertatu izana. Mendi martxa, musika, jan edana, haurrentzako ekitaldiak... Denetarik izango da. Baita gerri buel-

ta mugitzekoa ere. Gogoan izango dituzue iragan maiatzeko Mundumob ekimena, baita 2011ko Flashmob-a. Dantza hauek berreskuratu asmo dituzte abenduaren 29rako. Herritarrek dantzan direla borobildu nahi dute ospakizun eguna. Koreografiak ahaztuak dituzuenok lasai, Mikel Erguindator eta pauso guztiak irakastera.

Pago landaketa

Jaialdiarekin bat egin eta herritarrei bertaratzeko gonbita luzatzen die Usurbilgo Udalak. Egunean zehar ospatuko diren ekitaldietako bat hain zuzen Udalak berak deitu du. Abenduaren 29an, goizeko 11:00etan Artzabalgo parkean (baserri ondoan). Iragan abenduaren 5ean, Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak Sutegin antolatu zuen

ekitaldian, pago bat oparitu zitzaion Usurbilgo herriari. Pago hau landatuko dute Artzabalgo hitzorduan.

"Gipuzkoarentzat eta Usurbilgo herriarentzat ere berri pozgarri dela zalantzarik ez dugu. Udalak herritar guztiokin ospatu nahi du hainbat urtetan usurbildarren aldarrikapenari erantzuna ematen dion gertaera hau. Usurbildar guztiak zoriondu nahi ditu, urte hauetan errauste planta ezartzearen aurka emandako urrats tinko eta jarrera gizatiar eta aurrerakoa eskertuz", adierazi dute Udaletik, herritarrei abenduaren 29ko jaialdian parte hartzeko gonbita luzatzearekin batera.

Egitaraua, behin behinekoa

Antolatzaileak abenduaren 29ko eki-

menak lotzen dabilta. Hauxe da behin behineko egitaraua (aldaketak izan ditzake):

9:00 Mendi martxa Mikel Laboa plazatik errauste planta eraiki asmo zuten eremura. 2 ordu ingurukoa.

Goizean zehar, kale animazioa eta jan edana. Flashmob eta mundumob ekimenak prestatzeko entsegu saioak.

11:00 Ekimenak bigune ezberdinetan:

-Frontoian: haurren gunea. Pailazopak, ipuin kontalariak... egongo dira.

-Askatasuna plazan: musikaren gunea. Musikari ezberdinen ekarpena.

13:00 Ekitaldi nagusia frontoian. Ondoren, dantzak: Mundumob eta Flashmob. Dantzak gogoratzeko, entsegu saioak goizean zehar.



AGINAGA

LONTXO ZUBIRIA

Agur errauskailuari

Urte hau ere joan zaigu jada baina 2013ko azaroa ez zaigu ahaztuko pixka batean Aginagan, Gipuzkoako beste herri askotan bezala. Sinesinezina ematen zuena Gipuzkoako herritarrok lortu dugu, errauskailuaren proiektua atzera botatzea lortu dugu. Gogorra egiten ziztaigun, jai eta aste, gau eta egun makinak lanean ikustea, etsita ere egon ginen baina azkenean lortu dugu!

Beraz zer ospatua badugu, eta zer arraio, hala ospatuko dugu. Ez beste agintari batzuek lotsa gutxiarekin egin zuten bezala, herritar guztion diruarekin angulak janez bankuekin firmatu izana, alferrikako obra kaltegarri bat egitea zor handi hura herritarren bizkar utziz. Guk geure patrikatik eta apalago, baina ederki ospatuko dugu.

Gainerakoan, aspaldiko partez aurtengo Eguberri jaietan Jokin Errasti eta Ramon Uribe ere etxean ditugu. Espero dezagun Olatz Lasagabaster, Patxi Segurola eta Xabier Aranburu "Xomorro" ere laster etxera ekartzea. Denon ahaleginarekin lortuko dugu.

Bitartean segi dezagun errauskailua bezalako astakeriei aurre egiten eta gure seme-alabei gizarte hobe bat uzteko alternatibak landuz. Atez-atekoarekin demostratu diegu handi aberatsen diru goseei aurre egiteko gai garela. Eguberri on denoi eta urte berrian eman ditzagula horrelako pauso gehiago!



ATXEGALDE

MARIA JESUS URBIETA

Eguberri on

A bendua bukatzen ari da, konturatzerako urtea joan zaigu. Santa Luzia eguna ospatu dugu. Aurten ere, zenbait emakume elkartu dira jaietxe desberdinetan. Hurrengo urterako planak ere aipatu dira, esanez ia beste behin ere ondo ospatzeko aukera izaten den. Santo Tomas eguna ere bultzaka dugu. Gure auzoan prest dugu txistorra Joakinen harategian. Ahalik eta ondoen pasako dugu, talo eta ogitartekoekin, trago goxoz lagunduta, umore onenean, beraz animatu.

Beste kontu bat. Aurreko hiru larunbatetan meza bereziak izan ditugu Salbatore Parrokian; azaroaren 30ean, abenduaren 7an eta abenduaren 14an. Meza hauek EITB-k grabatu ondoren, Euskal Telebistak eskaini ditu azken igandeotan, goizeko 10:00etatik aurrera, etxean zirenek ikusi ahal izateko. Ramon Udaberen eskutik, Irrii Abesbatzak parte hartu zuen. Gabonak gainean ditugunez, zorionak eta urte berri ona denoi. Baita herritarrek izanik, kanpoan bizi diren guztiei, batez ere Argilango osaba Joan Mariri. Urtezaharra ondo bukatu eta urte berri on!!!



SANTUENEA

IÑAKI LARRAÑAGA

Urteko azken kronika

Din dan don! Din dan don!... Ba bai, hemen dira berriro ere gabonak, Olentzero dator, urte berria dator, turroiak datoz, kiloak datoz... Eta urtearen balantzea egiteko egunak datoz. Beti esaten dute 13 zenbakiak zorte txarra ekartzen duela, eta 2013 izanik, batek baino gehiagok, zenbaki horri begiratuko dio balantzea egitean, beste batzuk ez. Urtea, bizitza bezala, gorabehera beteta egoten da, une onak eta txarrak, bata bestearen atzetik iristen zaizkigu, eta datozen bezala hartu behar ditugu.

Eguraldia ere, halaxe izan dugu azken aste hauetan, hego haizetik, izotzera, eta izotzetik hego haizera, eta denak ero-ero eginda, jajaja. Neure urteko balantzea egitean, horixe jarriko dut laburpen gisa: urte eroa. Eta nik bezala beste batzuk. Azpimarratu nahi nuke, duela gutxi izan dugun albiste pozgarri bat, Ramon Uriberen itzulerara, kostata baina hemen dugu. Eta amaitzen joateko, ondo pentsatzeko Olentzerori edo urte berriari zer eskatu, eta ez kexatu ikatza uzten badu, gaurko egun hauetan, hori ere eskertuko genuke eta. Neure partetik behintzat, ondo buka dezazuela urtea, eta ea datorrenak, denentzako hobekuntzak ekartzen dizkigun. Nik behintzat, datorren astean, zapatak garbi-garbi jarriko ditut leiho ondoan, zuek egin nahi duzuenak.



KALEBERRI

ANA URDANGARIN

"Gabonak gabonak..."

Gabonak gabonak etorriko dira eta haiekin urte berria...". Horrela dioen kanta ezagun bat dugu denak gogoan ezta? Horixe, Akelarre taldekoen abesti ezagun batek dioen bezala, hementxe ditugu gabonak ate joka jada. Urte bukaera bete betean sartu zaigu konturatzerako, aurten ere hila-bete erdian sartuak gaude eta festa giroa da nagusi. Txistor usaia nabari da bazterretan bai, gutxi geratzen da asteburuan ospatuko den Santo Tomas egun handirako.

Usurbilen ere ospatuko da urtero legez, baina aurtengoan, egun ofizialaren ondoren izango da. Ez da faltako girorik gurean orain ere.

Nire partetik, desiorik hoberenak guztientzat eta urte amaiera eder bat izan dezazuela. Nahi horrekin batera izango baita 2014 urte berriaren hasiera eta. Urte berri on!!! Txintxo-txintxo portatu, Olentzero laster dugu eta etxeko ate joka!!!!

Usurbilgo Uri Buru Batzarra, EAJ-PNV

“Politika egiteko beste era bat aldarrikatu nahi dugu, beste alderdiei informazio gehiago emanaz”

Astekari honekin amaituko dugu udal aurrekontu proposamenaren inguruan zabaldu genuen erronda. EH Bilduren hitzak jaso genituen lehenbizi, PSE-EE eta Hamaikabat alderdienak ondoren, eta jarraian datoz EAJ-PNV alderdikoen balorazioak.

Zuen alderdiaren iritziz, 2014ko udal aurrekontuak osatzeko orduan zertan asmatu du udal gobernuak? Eta zertan kale egin du edo zer ez du kontuan izan? Esan daiteke udal gobernu honek Aralarko taldearekin gobernatzen duela.

Ezker Abertzalea berak, etengabe aldarrikatzen duen modeloa, egunerokotasunean ez du aplikatzen, informazio gutxi ematen digu oposizioan gauden talde politikoei. Batzorde informatibo gutxi jartzen dituzte eta denborarik ez da izaten gaiet buruz gaiak behar bezala eztabaidatu eta lantzeko.

Baita ere garapen bidean dauden herrirentzat ekarpena jaitsi zuten %1etik %0,8a, nahiz eta gure eskarera %1 mantentzea izan den.

Azken urte hau ere ez da eman-



Andoni Atxega, EAJ-PNVko udal zinegotzia.

korra izan, udal kudeaketaren lehen-tasuna, zabor bilketa da, beste gairik izango ez balitz bezala, eta garrantzia duten beste gaiak arretarik gabe gelditzen dira, krisialdi ekonomikoaren aurrean neurriak ez dira hartzen, hirigintza arloan emaitzak ez dira ikusten (urte hauetarako aurreikusitako babes ofizialeko etxebizitzak ez dira aurrera ateratzen), ikastola publikoko gaia konpondu gabe gelditzen da urtea joan eta urtea etorri...

Orokorrean politika egiteko bes-

te era bat aldarrikatu nahi dugu, beste alderdi politikoei informazio gehiago emanaz, eta beste erakundeekin harreman emankorrak areagotuz. Gestio ezak emaitza kaxkarrak ematen ditu.

Agerialdeko eraikina egokitu, Txokoaldeko plaza eraberritu, Bidegorri sarea sustatu... 2014 urterako proposatu diren udal inbertsioak egoki ikusten al dituzue?

Guk egin dugun oposizioa ardura-

tsua izan da eta horrela jarraitzea nahi dugu, beraz proposatutako inbertsioen alde gaude.

Baina Ezker Abertzaleko gestioa hala nolakoa dela pentsatzen dugu. Gestio onak herritarren mesedetan dira, eta horretarako diru sarrerak landu egin behar dira, ez bere gisa etorri zain egon. Gobernuaren gogoeta bakarra diru sarrerak igotzeko, alokairu sozialerako dituen bi etxe saltzea erabakitzen du. Ez zaigu iruditzen ez ardura-tsua eta ez koherentea bere betiko diskurtsoarekin.

Hau al da kudeatzea?

Gastua ere kontrolatu egin behar da eta ez zaigu iruditzen hori egiten denik. Zenbat kostatzen zaizkigu eskaintzen diren zerbitzu guztiak, ondo ordainduta al daude edo garestiak ateratzen al dira? Kale garbiketak, administrazioak, zabor bilketa, kirol zerbitzuak... Eta abar eta abar. Oro har eskaintzen diren zerbitzu guztiak etengabe aztertzen eta eguneratzen joan behar dute.

Beste alde batetik, erabakiak azkarrak izan behar dute eta Ezker Abertzalearen ezaugarria gestioari dagokionez, oso gestio makala da.

Olentzero itzuli da gure artera

Gabon gaua heltzeko zain egon beharrik ez. Euskal Herriko ikazkin ezagunena, Mikel Laboa plaza ondoko errotondan dago jada. Apain eta goxo asko, udal langileek egokitu dioten estalpe barruko babesan.

Hantxe egongo da eguberriak amaitu artean. Edo hobe esanda hortxe egon behar luke, aurrekariak kontuan izanda, inongo kalterik sufritu gabe.



Errege Eguna pasa arte bertan izango da Olentzero, bere estalpean.

“Denak ala inor ez”, presoek eskubideen inguruko gazte dinamika berria

Presoek eskubideen aldeko ekarpenetik haratago joan nahi du Usurbilen martxan jarri den gazte dinamika berriak. Gatazkaren konponbiderako, “euskal preso eta iheslari politiko guztiek lehen mailako agente politiko izan behar dutela aldarrikatzera gatoz”. Testuinguru honetan, ekimen sorta antolatu dute eguberriotarako, urtarrilaren 11n Tantz Tanta ekimenak Bilbon deitu duen mobilizazio erraldoiarekin bat egiteaz gain.

NOAUA! Zer ezaugarri ditu gazte dinamika berri honek?

Denak ala inor ez: Hasteko eta behin, behar beharrezkoa da ulertzea Euskal Herrian nazio gatazka konpontzeko bidean garela eta urratsak ematen jarraitzeko ziegan zein erbestean bahituta dauden preso eta iheslariak askatzea lehentasunez eman beharreko pausua dela. Izan ere, berauek gatazkaren ondorio eta konponbidearen parte diren neurrian bidelagun behar baititugu konponbideari bultzada emateko. Horretarako, noski, bi kolektibo hauei ezarritako salbuespen neurri guztiak gainditu eta dagokien izaera politiko eskuratu behar dute. Ekinbide honetan, gazteok ere lekukoa hartu eta gure ekarpenak egitera gatoz “Denak ala inor ez!” gazte dinamika berritan. Dinamika zabal honek gazteria osoaren konpromisoa izango du oinarri, guztiok baikara beharrezko aurrera egiteko, bat inon loturik deino ez baikara aske izango.

Preso eta iheslarien eskubideen aldeko ekarpena egin asmo duzue. Ekarpene hori zer modutan gauzatuko duzue?

Lehen azaldu moduan, ez gatoz preso eta iheslarien eskubideen aldeko ekarpen soila egitera, baizik eta gatazkaren konponbide integralerako, hau da, nazio eta erabakitze eskubidearen ukapena gainditzeko, euskal preso eta iheslari politiko guztiek lehen mailako agente politiko izan behar dutela aldarrikatzera gatoz eta konponbide hau benetakoa bada,



Abenduaren 27ko elkarretaratzean hartuko dute parte, besteak beste.

DENAK ALA INOR EZ

“Dinamika zabal honek gazteria osoaren konpromisoa izango du oinarri, guztiok baikara beharrezko aurrera egiteko”

euskal preso eta iheslari politiko guztiek etxean eta libre egon beharko dute, lehenengotik azkenengoraino. Hau esanik, gazte anitzen konpromiso maila ezberdinak uztartu asmo dituen ekarpenak batu nahi ditugu, egoera salatzeko ekimenak egin edota preso eta iheslariarekin harremanak sendotuaz esaterako. Hamaika modu daude norberak bere ekarpena egi-

teko, garrantzia ekarpen hori egin gabe ez geratzeko datza.

Zein da egun euskal preso eta iheslariak bizi duten egoeraren inguruan egiten duzuen irakurketa?

Bi urte igaro dira Aieteko Konferentzian nazio gatazka konpontzeko bide orria mahai gaineratu eta ETAK behin betiko su-etena aldarrikatu zuenetik. Orduetik, Espainiako eta Frantziako estatuek ez dute urratsik emateko borondaterik azaldu, jakin baitakite gatazkaren ondorioak (preso eta iheslariak kasu) konpontze bidean jarrit gero erroari heldu beharko diotela. Etsaiak blokeo egoera luzatu nahian dabilta, gatazka luzatuz beraz, honen adibide Herriraren eta beraien helburuen kriminalizazioa. Nazio gatazka-

ren konponbidean urratsak ematen jarraitzeko blokeo hau haustea ezinbestekoa da, herri presioa areagotu eta bi estatuei jasan ezin izango zaizkien baldintzak sortuz. Honegatik da hain garrantzitsua blokeoa islatzen duen preso eta iheslarien auzia konpontzea eta, horretan, guztion bultzada da beharrezkoa.

Gabonetako hitzorduak

Abenduak 24, asteartea

17:30 Olentzero jira, frontoitik.

Abenduak 27, ostirala

20:00 Preso eta iheslarien aldeko elkarretaratzea Mikel Laboa plazan.

Abenduak 31, asteartea

17:00 San Silbestre lasterketan “Denak ala inor ez” kamiseta urdinekin agertzeko deia.

Urtarrilak 3, ostirala

19:00 Bertso musikatuak Aitzaga aurrean.

Urtarrilak 4, larunbata

“Denak ala inor ez eguna”, frontoian eta Usurbilgo Gaztetxean.

Urtarrilak 11, larunbata

Bilbora joateko autobusak Usurbildik.

Lehentasuna, urtarrilaren 11n presoek eskubideen aldeko itsaso erraldoia osatzea

NOAUA! Urtarrilaren 11n presoek eskubideen aldeko mobilizazio erraldoia deitua dago Bilbon. Egun horretan zergatik joan behar genuke Bilbora?

Esandako guztiagatik, lehentasunezkoa da urtarrilaren 11ko ekimenaren bitartez presoek eskubideen aldeko itsaso erraldoia sortzea. Itsaso horren bitartez sakabanaketa amaitzea edota preso gaixoak etxeratzea lortu behar dugu. Eta gazteok, itsaso horren

tanta bat gehiago izango gara. **Bilboko hitzordu honen aurretik, Usurbilen ekimen sorta antolatu duzue.**

Preso eta iheslarien auzia eta gure aldarrikapenak mahai gainean jartzeko herriko gazte ezberdinen artean egitarau bat osatu dugu, gabonetan zehar ekimen ezberdinak burutuko ditugularik.

Ekimen hauen tartean bertso musikatuak, “Denak ala inor ez” eguna, eskutitzen idazte kolektiboa... aurki ditzazkegu. Gazte-

riari ekimen hauetan parte hartzeko gonbita luzatzen diegu beraz.

Besterik?

Gabonetan ezin ahaztu gabe utzi hain urrun dauden euskal preso eta iheslari politikoak. Xomorro, Patxi, Ximio, Olatz eta Xabierrek, eta beraien senideek, jaso ditzatela gure besarkada eta muxurik beroenak. Hemen, herrigintzan behar zaituztegunako, euskal preso eta iheslari politikoak etxera!

abenduan ikuszirkus



26

OSTEGUNA

Mimirichi Clowns

(8:00 - 10:00)

20:00

Paper world



27

OSTIRALA

Tiritirantes

(8:00 - 10:00) Cirqueamos

10:00 Patas arriba,
una historia de circo



28

LARUNBATA

Hermanos
Infonfundibles

(8:00 - 10:00) Diabolo Clasic Metal

Circo Pitanga

(8:00 - 10:00) Rêves d'été



29

IGANDEA

Cirq'ulation
Locale

(8:00 - 10:00)

10:00

Second Life



30

ASTELEHENA

Zirika Zirkus

(8:00 - 10:00)

20:00

Txarlestруп



Andoain




bastero
KULTURGUNEA

Patrocinadores:



Datorren NOAUA!, urtarrilaren 11n



Amagoia Mujikarekin osatu dugu aste honetako portada, Ikor Kotx-en argazki ederra baliatuz. Elkarrizketa ordea, gehigarri berezian topatuko duzue. Eta eskubitara, Zalao Arnaizek egin duen egutegiaren azala.

Esku artera heldu zaiuzuen 556. zenbaki hauze duzue 2013ko azken NOAUA!. Hurrengo bi asteotan ez da aste-keririk izango. 2014ko lehen argitalpena, urtarrilaren 10ean. Bitarte horretan, ohar edo zorion agurrik baldin baduzue, bidali email bat helbide honetara erredakzioa@noaUA.com, edo egoitzara ekarri.

Egoitza zabalik izango da eguberrietan. Astelehenetik ostiralera, gabonetako jai egun eta bezperatan izan ezik. Web orrialdea ere eguneratzen jarraituko eguberrietan. Edozein argibide behar izanez gero, deitu 943 360 321 telefonora.

JAI EGUN ALDAKETA

Abenduaren 20ko NOAUA!rekin batera, Zalao Arnaiz herri-

tarrak diseinaturiko 2014ko egutegia doakizue, Usurbilgo argazki zaharrekin. Ia ezagutzen dituzuen irudietan ageri diren herritarrak. Egutegia aipatuta, erakundeek datorren urterako jai egun ofizialak finkatuak dituzte. Nabarmentzeko moduko aldaketa bat dago. Azken urteotan ez bezala, urriaren 25a lan eguna izango da 2014an.

Horren ordez, uztailaren 25a, Santio Eguna izendatu dute jai egun gisa Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Gainerakoan, aldaketa handirik ez. Hona hemen, 2014ko jai egun ofizialen egutegia:

Urtarrila: 1, 6. Apirila: 17, 18, 21. Maiatza: 1. Uztaila: 2 (Usurbilen). 25, 31. Abuztua: 15. Azaroa: 1. Abendua: 6, 8 eta 25.

Jasotako materialaren erdia berrerabiltzea lortu du Eginklik! taldeak

Eta emaitza honekin noski pozik asko da, ordenagailu ekipozazurrak jaso, konpondu eta behar dutenen artean doan banatzen ari-zen den Eginklik! Usurbilgo lan talde berria. Hilabete eta erdiko ibilbi-dea osatu du jada, informatika gaien berrerabilpena sustatzen duen bilguneak. Eta ez zaie lanik falta.

"Egoera desberdinetan ziren 8 ekipoz jaso ditugu. Dagoeneko, 3 ekipoz entregatu ditugu, laster laugarrena. Honek esan nahi du %50 berrerabiltzea lortu dugula, ez da emaitza makala!", diote Eginklik! taldeak. Lor-

pena halere haratago doa. Hasieratik NOAUA! bidez ere egin zuten eskaretako bat bete baita; egoitza finko bat dute. "Jada lortu dugu, gure lana aurrera eramateko lokal egoki bat. Eskerrak eman nahi dizkiogu udal-txetrik lagundu diguten pertsona guztiei. Bestetik ere, jaso dugun harrera oso positiboa dela ikusten dugu. Eskerrak asko emaile guztiei!", adierazi dute.

Olentzerori oharra

Ordenagailu ekipoz zaharrak jaso, konpondu eta behar duenari doan ematen dion egitasmoa martxan

dute beraz eta hasitako bideari gogotsu jarraitzeko prest daude, "Olentzerori gurekin gogoratzea eskatzen diogu, baita zurekin ere... Eskerrak asko Usurbil eta gabon onak pasa", desioa luzatu diete herritarrei.

Harremanetan jartzeko

Gogoan izan, honako bide hauetatik jar zaitezke harremanetan Eginklik! taldekoekin:

E-posta: eginklik@gmail.com
Telefono zenbakia: 649 211 665 (Mikel, arratsaldean deitu).

Edo bestela, Kaxkoan kalean aurkituko dituzue.

Kike Amonarrizekin, solasean

25 bat lagun bildu ziren tolosarren azalpenak entzuterako, abenduaren 11rako NOAUA! Kultur Elkartek Sutegin antolatutako ekitaldian. Euskal Herriko egoera soziolinguistikoei buruz aritu zen Amonarriz.



Haurren txokoa, Santo Tomas azokan

Liburuak adina kontaketa sortu litezke. Liburuotako istorioak hartu, bere ukitu pertsonala eman eta zuzenean kontaktzen dizkio haur, gazte nahiz helduei. Ohol-tza gainekoak baino nahiago izaten ditu, publikoarengandik hain gertu sentiarazten duten saiok. Igandean Santo Tomas Azokan izango da, Dema plazan. Egun berean giroturiko kontakizunekin, haurrak liluratzera dator Ixabel Agirresarobe.

NOAUA! Saioa azoka inguruan girotua egongo da?

Ixabel Agirresarobe. Ezagutzen dut Donostiako Tomaxa izeneko amon bat, oso maitea dudana. Hark kontaktzen dit urteetan Santo Tomaseta nola ibili den. Berak han gertatutakoak eta berari kontatu dizkieten kontuak ekarriko ditut Usurbila. Ahal duen guztia baserritarrez jantzita etor dadila, jaialdiari kolore pixka bat emateko.

N. Halako emanaldi bat sortzeko abiapuntua zein izaten duzu?

Beti idatzita dauden ipuinetan oinarritzen naiz. Beti jotzen dut gustuko ipuinetara. Asko irakurtzen dut. Aukeraketa pertsonal bat egiten dut, neure irizpideen arabera. Ipuin horiei neure esperientzia pertsonalen bat, edo mozorroa eranstean diet, batez ere horrek gertutasuna ematen diolako kontaktari. Ze herritan zauden, inguru horretako egokitzapen txiki bate egiten dut. Eta gero zuzeneko saioa denez, ikus-entzuleak zer erantzun eman, prest egon behar duzu. Hor narratzaile bakoitzaren abileziak baliatu behar izaten dira.

N. Umeak ikus-entzule dituzunean, inprobisatu beharra izango duzu. Nola aurre egiten diezu espero ez dituzun egoera horiei?

Saioa pilo bat aberasten dute. Behin gogoan dut, asto baten gorabeherak kontaktzen hasi eta ume batek bere aitona asto bat zuela esan zidan. Kontaketa saioaren erdian bota zuen. Eta astoak ze izena zuen galdetzen nion, eta ia zaintzen zuen. Istorioari segitzen diozu umeari eta gero istoriora bueltatzen zara. Gauza horiek gustuko hartzen dituzu, berak zuri



Igande honetan, 11:30ean, ipuin kontaketa saioa eskainiko du Dema plazan.

IXABEL AGIRRESAROBEN

“Ezagutzen dut Donostiako Tomaxa izeneko amon bat, oso maitea dudana. Berak azaldutako kontuak ekarriko ditut Usurbila”

kontatu nahi dizu baita. Istorioa elkarri kontaktzen ari ginen. Adinekoek ere gustura entzuten dituzte.

Behin gogoan dut jubilatuei kontatu niela Usurbilen, luxu bat. 80 urte inguruko bi aitona bat nituen lehen lerroan, pribilegiatua sentitu nintzen. Nola entzuten zuten, nola begi-

ratzen zuten, gozamina da.

N. Ipuin kontaketa bat eskaintzera joan ohi zara. Baina bueltan zenbat jasotzen duzun publikoaren partetik...

Asko. Gainera publikoa, asko aldatzen da leku batetik bestera. Batzuk bukaerara arte ez dute ezer esango eta beste batzuk, hasieratik komentarioak egiteko prest egoten dira. Publikoa gustura dagoenean konfiantza hartzen duzu eta orduan eta gus-turago kontaktzen duzu.

Esker oneko lana da. Publikoari eskaintzen diogu lana, baina publikoak ematen digunean hori izugarria da.

Gurasoen gozagarri

N. Umeekin batera gurasoak ere emanaldietan izaten dira. Umeak baino errazago sartzan dira maiz kontakizunetan?

Duela 20 urte inguru, ipuin kontaketeekin hasi ginenean, oraindik halako saioak ez zeuden normalizatuta. Liburutegietara joaten ginen. Umeak eserita jartzen ziren. Gurasoak aldamenean, saioa umeentzako zenez, berriketan aritzen ziren. Gero saioetan umeak bakarrik egoten ziren garaia izan genuen. Eta orain, pixkanaka, herriaren arabera, guraso batzuk emanaldira sartu eta saioa oso gustura entzuten dute. Kasuotan jada publiko osoari begiratzen diot. Horrelakoetan helduei ironia batzuk sartzan dizkiet eta eskertzen dituzte. Asko eskertzen dute, zuzeneko saio bat delako.

N. Etxean ere izan gaitezke ipuin kontalaria. Nola?

Ipuin kontalaria naiz. Ama aldi berean, baina etxean ipuinak aitzak kontaktzen dizkie haurrei. Berak liburu hartu eta istorioa irakurtzen die. Nola? Bere erara. Norberak bere haurra baino hobeto beste inork ez du ezagutzen. Orduan zuk hitz egiten diozun bezala, kontaketa berdin.

Ekitaldiz beteriko Azoka izango da igandekoa

Berrikuntzekin dator gainera, NOAUA! Kultur Elkar-teak antolatutako gabon giroko ekimena. Joxe Aizpurua, Asteasuko Olarreaga Goiko base-rrikoa, Bizkarreko idi pare perratze lanetan jardungo da azokan. Zereginotarako materiala ere erakusgai jarriko du. Aurtengo nobedadeetako bat da, baina ez bakarra. Ixabel Agirresarobe haurrentzako ipuinak kontaktzen arituko baita Dema plazan.

Nafartarrak taldeak azokan emango dio amaiera Eperra ikas-tola laguntzeko martxan izan duen elkartasun kanpainari. Bil-dutako laguntzaren berri eman-go dute frontoian. 12:00etan Kantu-jira berezia egingo dute Kantu Taldekoekin.

Bazkide egiteko aukera

NOAUA! Kultur Elkar-teak ere pos-tua izango du azokan. Bertan, besteren artean, bazkidetza egi-

teko aukera izango duzue. Eta noski, jan edanik ez da faltako; taloak, gaztainak, sagardoa, pin-txoak... Bapo jartzeko moduko azoka izango dugu igandean. Azokak iraun artean lanean jar-dungo duena, besteren artean, babarrun eta sagardo txapelke-tetako epaimahaia izango da. Igande eguerdirako espero dugu euren azken erabakia. Segidan banatuko dira sariak. Etorri azo-kara eta ondo pasa!

Usurbil



2013ko abenduak 21

Usurbilgo OIARDO Kiroldgian
2013ko abenduaren 21ean, bi saio: 16:00etan eta 18:30etan
Pirritx, Porrotx eta Mari Motots
"Bizipoza"

Ian berriaren aurkezpen emanaldia

Sarrerak: aurretik 8 euro / egun berean 9 euro (12 hilabete arteko haurrek doan)

Salmenta puntuak: Usurbil (Bordaxo taberna eta Marije arropadenda)

Antolatzailea: ARGIAren Lagunak Usurbilgo Taldea.

Harremanetarako: 943 37 15 45 / sustapena@argia.com

Usurbil Kirol Elkartea 50 urte
1963-2013

Dagoeneko salgai
dago Usurbilgo
eskubaloï taldearen
liburua!

15€



**GABONETAKO OPARI
EDERRA!!
ESKATU OLENTZERORI!!**



noova



ThyssenKrupp



**Zergatik ordaindu hainbeste
urteroko kotxea, motorra,
furgoneta edo kamioiaren
azterketan edo olio aldaketan?**

**Hiru erataria egin dezakezu:
zuk eginda, zuk gurekin ikasiz egin edo guk eginda**



Egin zerorrek

BOXEEN ALOKAIRUA

**OFERTA!
ESKAINZA!**

943 360850



deitu eta eskatu prezioak konpromisorik gabe 943 360 850, boxes@euromikels.com
N-1 km 441. Billabona www.boxeseuromikels.com

Oroimenaren garrantzia, egi osoaren bidean

Abenduaren 30ean ekitaldi berezia izango da Usurbilgo frontoian, 20:00etatik aurrera, "Egiari bide, askatasuna amets" goiburupean. 1936tik hona, bakoitzak bere garaian, eta bere ideologiatik, herri honen askatasunaren alde borrokatu zutenak ekarri nahi dituzte gogora. Egia ortzemugan eta helburu, ezinbestekoa ikusten dute gertatutako guztiaren egia azaleraztea. "Egia guztiak ikus ahal izateak elkar ulertzeko bidea zabalduko baitu", hala adierazi digute gure solaskideek, Joxe Domingo Aizpuruak, Milagros Pagolak eta Arantza Kaminok.

Patxi Aizpuruak, Zabalekoa, EAJko militantea zen. 1936ko irailean fusilatu egin zuten. Bere iloba da Milagros Pagola. 1980an, Batallón Vasco Español delakoak lehergailu bat lehertuarazi zuen Joxe Martin Sagarriaren autoan. Bere iloba da Arantza Kamino. Bi adibide dira, baina gehiago ere zenbatu zitezkeen. "Eman duten guztiarengatik, euren etxekoek pairatu duten guztiarengatik, ezin diogu bizkarra eman askatasunaren atariraino ekarri gaituen ondare humano horri", azaldu digu Joxe Domingo Aizpuruak. Ideologia zein garai ezberdinetako borrokalariak ahazturan eror ez daitezkeen. Euren batera, beste senitarteko batzuk ere izango dira frontoian, abenduaren 30ean.

Oroimen ariketa hau, 36ko gerratik hona borrokan aritu direnei begi-



Abenduaren 30eko ekitaldiaren berri eman digute Arantza Kaminok, Joxe Domingo Aizpuruak eta Milagros Pagolak.

**"Askatasun haizeak
lagun gaitzala bidea
egiten eta lepotik
hartuta helmugara
heltzen"**

ra egina dago. "Frankismoan eta Frankismoaren ondoren, herri honek ukazioa pairatu du, eta bere ondorioek belaunaldiz belaunaldi izan dute eragina", azaldu digute. "Francok hil ondorengo urteak garrantzitsuak ziren, marko egokia izan zitezkeen konponbiderako, baina ukazioaren jarraipena hobetsi zuten eta gerrak ez zuen amaierarik izan", hala

uste du Joxe Domingo Aizpuruak. "Ez zen arazoa konpondu Trantsizioan, eta bere horretan jarraitzen du oraindik".

Zoru etikoaren lur emankorra

Zoru etikoaz hainbeste hitz egiten den garai honetan, iragana kontuan hartzea nahi dute gure solaskideek: "Artxanda, Orioko mendatea, Aritxulegi eta Hernaniko hilerriko hornen errailetan dago euskal zoru etikoaren lur emankorra. Hain zuzen hori da egungo erronka: orain artekoa errepikatu ez dadin eta herri honen eta herritarren eskubidea guztien aitortza eta errespetua denon zoru demokratikoa izan daitezen". Horri

erantzun nahi dio abenduaren 30eko saioak. Etorkizunari so eginez.

"Guztion konpromisoa eta partehartzea aldarrikatu nahi genuke. Orain artekoa sekula gehiago errepikatu ez dadin". Milagros Pagolak elkarbizitzan sakontzeko beharrekina lotzen du abenduaren 30eko ekimena. "Elkarbizitza eraikitze aldera, biktima guztiei aitortza egin behar zaie, horrek lagunduko digulako erreparazioaren bidean".

Ez da soilik euskal gizartean eman. Gatazkak izan diren gainontzeko herrietan ere, premiazko zat jotzen da aitortza, erreparazioa eta justizia. Eta hori da abenduaren 30eko ekitaldiarekin azpimarratu nahi dena.

Milagros Pagola: "Oso gutxi kontatu ziguten, isiltasuna zen nagusi"

Ni Patxi Aizpuruak Zabalekoaren iloba naiz. Usurbilen, badira sei bat fusilatuak 36ko gerran. Beraz, ez da osabarena bakarrik, denek oroitzapena ekarri behar da gogora", Milagros Pagolak argitu digunez. Bere kasuan, saminaren sustraia oso aspaldikoak izan arren, osabaren galerarekin bizi izan behar dute etxean. 36ko udazkenean fusilatu zuten frankistek. "Oso gutxi kontatu ziguten guri. Isiltasuna zen

nagusi. Beldurraren ondorioz, ez ziguten ezer kontatzen. Azken aldera, izebak eta zahartu zirenean, orduan hasi ziren esaldi batzuk aitatzten. Baina pixkanaka jakin dugu. Umetan ez genuen berririk jaso".

Beldurra ez ezik, min handia pasatakoak izan zirela eta horregatik ere ez zutela bere etxekoek hitz egiteko joera izan. 36ko gerran etxekoren bat galdu zuten askori gertatu zitzaizena, alegia.

Arantza Kamino ere iritzi berekoa da: "Heriotza beti da gogorra, eta erailketa baten ondorioz bada are gogorrago".

"Etorkizunean, berriz errepikatu ez dadin"

"Horiek guztiak tokia eta errekonozimendua edukiko dute noiz edo noiz herri honetan gertatu diren eskubideen bortxaketa guztiak ikerituko dituen Egiaren Batzordean". Desio hori dute.

"Elkarbizitza eraikitze aldera, biktima guztiei zor zaie aitortza, justizia eta erreparazioa ematea, azkenean hori da kontua", erantsi nahi izan du Milagros Pagolak.

Horregatik "oso positiboa da denak elkartzea, biktima guztiak bateratzea", hala pentsatzen du Milagrosek. Eta funtsezkoa jotzen du "ez ahaztea zer gertatu zen. Berriz errepikatu ez dadin".

Abenduaren 30erako zabaldu dute deia. 20:00etan, frontoian.

Trukerako eskaintza zabala Jostailu Azokan



Sobratutako jostailuak beharra duten erakundeetara eramango dituzte.

Haurrak eta gurasoak ikusmiran sumatu genituen larunbat goizean frontoian ospatu zen Jostailu Erabilien Azokan. Aisialdirako denetarikoko joko eta gai zeuden Hitz Aho Udarregi Ikastolako Guraso Elkarteak atondu zituen mahai luzeetan. Aurreko egunetan Sutegiko erakusketa aretoan herri-
tarrek utzitako jostailuekin hornitu

zuten beste behin, frontoiko gunea. Hain zuzen, azokarako zerbait utzi zuen aukera zeukan larunbatean, trukean beste jostailuen bat hartzeko.

Sobratutakoa, behar duten erakundeetara

Etxeko txikiaren aisialdian garrantzi nabarmena duten denbora pasa-

rako objektu guztiok erosi, erabili eta bota ordez, trukatu eta berrerabilpena sustatu nahi dute Hitz Ahokoek. Azoka amaieran frontoian geratu ziren jostailuak dira horren adierazgarri. Inork hartu ez zituen jostailuok ez dituzte botako guraso elkarteek. Beharra duen erakundeetara eramango dituzte. Behar dituenak berrerabili ditzan.

Ezagutzeko ez, erabiltzeko dago euskara

Jolasteko, maitatzeko, erabiltzeko eta askoz gehiagorako dugu euskara. Hala gogorararazi ziguten abenduaren 3ko Euskararen Egunean Udarregi Ikastolakoek. Ohiko klaseak albo batera utzi, eta ekimen berezietan parte hartzeko aukera izan zuten, HH, LH eta DBH-ko ikasle eta irakasleek.

Jokoak, antzezlanak, kantuak eta baita bertsoak ere izan zituzten. Euskal Herriko Bertsolarien Txapelketako finalera heldu den lagunetakoko bat, Beñat Gaztelumendik eta Alaia Martinek bertso saioa eskaini zuten ikastolako erdiko aretoan. Ikastolako leiho eta hormak berriz, euskarari loturiko lelo eta aldarridun muralak bete ziren. Irakasleek sortuak guztiak.



Euskararen Egunean izan ziren Udarregi ikastolan Beñat Gaztelumendi eta Alaia Martin bertsolariak.

Horietako batean jartzen zuena jaso dugu. "Euskara jakiteak ez zaitu euskaldun egiten. Euskara erabiltzeak bai-

zik". Abenduaren 3ko Euskararen Egunean, Udarregi Ikastolan irakurria.

"Olentzeroren etorrera ospatuko dugu"

Kaixo herritarrak!!

Gu Haur Eskolako 2-3ko lagunak gara! Irailean hasi genuen ikasturtea eta konturatzerako abenduan gaude!! Hiru hilabete hauetan gauza asko egiteko aukera izan dugu. Sokari heldu eta tipi-tapa Kalezarretik barrera oiloei ogia botatzera joan gara eta bizilagun ditugun aitona amonengana ere bisita batzuk egin ditugu.

Azaroaren 22an adibidez Santa Zezili eguna ospatu genuen elkarrekin, bai, musikaren eguna! Susik musika-tresna pila ekarri zituen. Hura bai zela benetako orkestra! Txunpa patxun pa...

Bisita aprobetxatuaz ezti goxogoxoa eraman genien opari, beraiek ere Erle Egunean goza zezaten. Guk ere sorpresa polita jaso genuen abenduaren 3an. Euskararen Eguna zela eta, DBH 1ekoek ikuskizun ederra egin ziguten: otsoa, txanogorritxo, txerria, ehiztaria... guztiak etorri ziren! Otso baten ipuina antzeztu ziguten, baina otsoak ez zigun beldurrik eman eh! Gero, sudur gorriak jarri eta dantza martxoso batekin bukatu zuten emanaldia. Aupa!

Egun hauetan, Gabonak datozela eta, pinurako apaingarriak egin, gabon kantak abestu, Olentzeroren ipuinak ikusi ditugu. Gu prest gaude dagoeneko!

Aurten ere Olentzeroren etorrera ospatuko dugu. Ostiral honean, abenduaren 20an, 17:00etan Olentzero eta Mari Domingiri harreara egingo diegu Haur Eskolako patioan. Urtero bezala, herrian zehar kalejiratxo bat egingo dugu, gabon kantekin herria girotuaz, ea lortzen dugun!

Azkenik frontoian gazi-gozoz eta sagardoaz gozatzeko tartea izango dugu. Txanpon gutxiren truke heldu eta txikiak festa giroan egoteko aukera ezin hobea! Dantza saio batzuk ere egongo dira agian... Noski baietz, altza porru! Animatu zaitezte! Mila esker!

Haur Eskolako haurrak.

Mirotz Ullateren omeneko eskubaloi txapelketa, abenduaren 29an

Eibar, Tolosa, Zarautz, Basauri, edota Hondarribiko eskubaloi taldeek parte hartuko dute, usurbildarrekin batera noski, Mirotz Ullateren omeneko infantil mailako gabonetako eskubaloi txapelketan. Abenduaren 29rako egun osorako jaialdia antolatu du Usurbil Kirol Elkartek Oiaro Kiroldegian. Goizeko 9:00etan hasi eta iluntzeko 20:00ak pasa arte, 20 minutuko eskubaloi neurketa laburrak jokatu dira goiz arratsalde.

Eguerdi partean bazkaltzeko etenaldia izango da. Eta arratsaldean, lehen sei postuetan sailkatzeko partidak jokatu dira, bai mutilen zein nesken kategorian. Nesken arteko finala, 18:40 aldera jokatu da, mutilena, 19:20 aldera. Eguna, sari banaketarekin amaituko dute.

NESKAK:

A multzoa: Usurbil B, Usurbil C, Basauri.

B multzoa: Usurbil A, Zarautz, Eibar.

9:00 Usurbil B-Usurbil C
10:00 Usurbil A-Zarautz
11:00 Usurbil C-Basauri
12:00 Zarautz-Eibar
13:00 Usurbil B-Basauri
14:00 Usurbil A-Eibar
16:00 5.-6. postuak
17:20 3.-4. postuak
18:40 1.-2. postuak



20 minutuko eskubaloi neurketa laburrak jokatu dira, goiz eta arratsalde.

MUTILAK:

A multzoa: Usurbil, Hondarribia, Basauri.

B multzoa: Tolosa, Zarautz, Eibar.

9:30 Usurbil-Hondarribia
10:30 Tolosa-Zarautz
11:30 Hondarribia-Basauri
12:30 Zarautz-Eibar
13:30 Usurbil-Basauri
14:30 Tolosa-Eibar
16:40 5.-6. postuak
18:00 3.-4. postuak
19:20 1.-2. postuak

13:00-15:30 Bazkaria.

20:00 Sari banaketa.

Larrun-Olaizola, mus txapelketan garaile

Musean onenak zirela erakutsi zuten joan den abenduaren 14an Aitzaga Elkartearen ospatu zen elkarte arteko txapelketan. Herriko 9 txokoetako jokalariekin ospatu zen final handia. Larrun eta Olaizola nagusitu ziren, Zubietako Yoko Garbi elkarteak.



Yoko Garbiko bi kide hauek nagusitu ziren Elkartearen Arteko Mus Txapelketan.

2014ari begira, kirol ikastaro eskaintza zabala

Hemen, jardueren berri, ordutegi eta guzti:

- **Sabeleko gimnastika:** astelehen eta asteazkenetan, 16:00.
- **Zumba gazte:** ostiralean, 18:00.
- **Cicling gazte:** ostiralean, 17:00.
- **Entrenamendu funtzionala:** astearte eta ostegunetan, 16:30.
- **Entrenamendu funtzionala:** astelehen eta asteazkenetan, 16:30.
- **Combygim:** astelehen eta asteazkenetan, 17:00.
- **Haurdunentzat gimnastika uretan:** hilabeteko ikastaroa: astearte eta ostegunetan, 15:30.
- **Igeriketa entrenamendua:** astelehen eta asteazkenetan, 15:30.
- **Igeriketa entrenamendua:** astearte eta ostegunetan, 19:00.
- **Informazio gehiago** Oiaro Kiroldegian, edo bertara deituta: 943 37 24 98.

San Silvestre lasterketan izen-ematea

Hurbilagok antolatuta, abenduaren 31n ospatuko da. Abenduaren 16an ireki zuten izen-ematea. Doan apuntatu ahal izango da, Hurbilago Elkartearen establezimenduetan edota jada martxan dagoen www.hurbilago.com web orrialdean.

17:00etan Mikel Laboa plazatik

Abenduaren 31n, 17:00etan Mikel Laboa plazatik abiatuta. Lau kilometroko honako ibilbidea osatu beharko dute partaideek: frontoia, Mikel Laboa plaza ondoko errotonda, Zubiaurrenea, Kale Nagusia, Etxebeste, frontoia, Kontzeju Zarra, Kale Nagusia, San Inazio errotonda, Bordatxo ondoko errotonda, Puntapax, Artzabal, Bordaberri, Zubiaurrenea, Bordatxoko errotonda eta frontoia. Izen ematea zabalik hurbilago.com webgunean edo Hurbilago Elkartearen saltokietan.



ETXEBIZITZA

Salgai

Sanesteban kalean pisua salgai. 3 logela, sukalde-egongela, komuna, eta balkoia. Dena berriua. Tel. 699 680 265. 150.000€.

Baxua salgai Errekabikin (61 m2) + pisu azpiko trasteleku (61 m2). 2008ko obra berria. Logela, ikasgela, egongela-jangela-sukaldea eta komuna. Aire egokitua, bero-gailua, beira bikoitzeko leihoak... oso funtzionala. Bizitzen jartzeko. 649 895 858

Pisua salgai Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Iñaki (665736896)

Pisu bat salgai Munalurran. 3 logela, 65 metro, berritzeko. Fatxada eta portala berritu berriak. 138.000 e. 617 972 350.

Atiko bat salgai Zubietan 110m2. 2008-an guztiz berriua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781 959 Julen.

Etxe bizitza salgai Kalezarren, 120 metro koadro. 16 m terraza, 80 m jardina eta garaje itxia 2 plaza. 676 453 176.

Roller etxeko modulo bat salgai Errioxako Fuenmayor herriko kanpinean. Informazio gehiagorako: 615 760 461.

Pisua salgai Munalurran, guztiz berriua, 1. pisua igogailu gabe, + 60metroko trasteroekin pisu azpian. 2 gela, aire egokitua, kalefakzioa, parket... ikusgarria. 200.000 euro. 636393237.

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbar handia. Lehen 240.000 euro, orain 190.000 eurotan. 662 056 899.

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria,

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaia.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUAk ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezeta-tan (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lursaillean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4. pisua. Kanpoaldera ematen du, eguzkitsua. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbarekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, berrituta, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

Alokairuan

Pisu bat alokatzen da Santuenean. 2 logela, egongela, sukaldea eta trastelekuarekin. 550€ negoziagarriak. Tel. 637 962 568.

"Logela bat alokagai. 250 euro + gastuak. Kale Nagusian. 606 642 161

Pisua alokairuan Santuenean. Berriua, 2 logela. Urtarrilatik aurrera. Fidantza gehi 2 hilabete aurreratuak. 630€

Etxebizitza alokatzen da Atxegalden. 3 logela, egongela, 2 komun

eta sukaldea. Tel. 626 347 914.

Usurbilgo pisu batean, logela bat libre konpartitzeko. 290€ hilabetero, Wifi, ura, elektrizitatea eta gastu guztiak sartuta. Giro ona, pisu dotorea eta handia. 657 700 408.

Atxegalden pisu bat. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, terraza eta igogailua. 637 309 209.

Gela bat alokatzen da Usurbilen. Pisua egokia eta gela handia. Tel. 691 898 800.

Etxe bat Txokoalden. 3 logela, komuna, sukaldea, egongela eta terraza handi bat. 688 863 366

3 gelako etxea alokagai erdialdean 700€ gehi gastuak. Gelaka ere alokatuko genuke. 630713583

Kaxkoan pisu bat alokatzen da, 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, ganbara eta igogailuarekin. 943 371 495 - 695767821-657711335

Usurbildarra naiz eta etxe bat alokatu nahi nuke inbiliarik bitarteko izan gabe. Interesatuak deitu mesedez 661568471 telefonora

4 logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. 659389707 nerezabala1@gmail.com

Pisua alokairuan Santuenean, 65m berriua, 2 logela, 650 euro. Tf: 667 438 145.

MOTORRA

salmenta,
garajeak

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

Garaje (marra) bat alokatzen da Kale Nagusian 60€ hilabetero. 657 700 408.

Garaje itxia alokatzen da Txaramunto auzoan. 15 metro karratuko. Tel. 667 71 50 75

SsangYong autoa salgai, Mercedes motorduna. Egoera onean.

1.500 euro. Joxe Mari 943361512

Garaje itxia salgai. 20 m karratuko. Kale nagusia, 26. Usurbil 23.000 euro. 674 343 184

Opel Zafira salgai, 1.781cv. 2010eko urrikoa. 25.000 km. Oso egoera onean. 652759267

Kale nagusian garaje itxi bat alokatzen da: ate automatikoa eta kotxea eta motoa sartzeko modukoa 667984083

Garaje itxi bat alokagai Artzabalen, frontoi ondoan. 647120253

Lokal bat alokatzen da Atxegalden. 2 solairu ditu, eta 90 metro. Tel. 653 714 672.

Txaramunto kalean garaje itxia alokatzen da. 620 416 963.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Papelak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeak garbitzen, sukaldeko laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketara edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

Neska arduratsuak lana bilatzen du internan moduan eta etxeko garbiketarako egiteko. 631 122 350.

Etxeak margotu eta dekoratzen ditut. Paisaiak, aurpegiak... agertzen diren koadroak egiten ditut. Altxariak konpondu. 634 181 059.

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 608 34 04 84

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 696 83 55 69

Usurbilgo neska euskaldun bat eskaintzen da arropak konpontzeko eta goizez etxeak garbitzeko. 696 601 795

Usurbilgo neska euskalduna, tituluduna eta esperientziaduna, haurrei ingeleseko klase partikularrak eman edo etxerako-lanetan laguntzeko prest. 670461180. E-maila: oli_ireth@hotmail.com

Klase partikularrak ematen ditut, LH-DBH. Irakaskuntza ikasketak bukatzeaz eta lan honetan esperientziaduna. (618598071 Izaro)

Zerbitzari moduan, helduak zaintzen, umeak zaintzen edo saltzaile moduan lan egingo nuke. Tel. 690 079 418.

Klase partikularrak ematen ditut edozein irakasgaietan. Esperientziaduna. Ordutegi eta prezioak adosteko erabateko malgutasuna. 634417969 (Amaia)

Udan edo ikasturtean zehar umeak zainduko nituzke. Lan honetan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintzan graduatua naiz eta gaitxo dauden pertsonen erizaintza zainketak emateko prest nengoke. (688801502 Irati)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaindu zein klase partikularrak emateko prest nago. Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

Haurrak zaintzeko prest nago udaran zehar goizez zein arratsalde. Irakaskuntza graduatuz eta aisialdi talde batean begirale lanean (688803821 Uxue).

Klase partikularrak ematen ditut ikasturtean zein udan. Irakaskuntza ikasketak eta errefortzu klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zainduko nituzke goizez zein arratsalde. Irakaskuntzan diplomaduna. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatria eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketara. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketara eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein orduetan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsua eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria presatu... Garbiketara lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrak ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingenieritza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut.



Zorionak Elene!

Abenduaren 21ean hiru urte beteko dituzu. Eskolan ospatuko dugu denok elkarrekin. Muxu bat Agiñako irakasle eta ikasleen partez.



Aupa Arai!

Berriz ere iritsi da Santo Tomas eguna, zure 4. urtebetetzea. Ondo ondo pasa eta muxu potolo bat.



Zorionak Xare!

Urtarrilaren 9an 9 urte beteko dituzu. Eskolan ospatuko dugu denok elkarrekin. Muxu bat Agiñako irakasle eta ikasleen partez.

Heriotzak

Lontxo Ibargoinen Alzaga

Abenduaren 14an hil zen 83 urterekin, Usurbilen



Catalina Canseco Chavero

Abenduaren 10ean hil zen 87 urterekin, Santuenean



Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte ardura-duna, arratsaldeetan 6-12 urte-tako umei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademiaren egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularak emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Neska gazte esperientziaduna, heziketa premia bereziak dituzten ikasleei klase partikularak emateko prest. 688 661 997 (Garbiñe).

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularak emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskalduna, haurrak zaindu edota klase partikularak emateko LH-n DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. Telefono zenbakia: 609 632 030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da egunez, adineko pertsonak umeak

zaintzeko, etxeko lanak egiteko, ostalaritzarako eta garbiketarako. 673 445 903

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

Lan eskaintzak

Estetizien bat behar da Usurbilen lan egiteko, tel 943 37 19 71

Emakume euskaldun eta esperientziaduna behar da Astigarragan, 6 hilabeteko haur txiki bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Goizez, astelehenetik ostiralera. 635742503

Emakume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko dituen interna behar dugu. Arduratsua den adineko emakume euskalduna hobestuko da. 943 300518 (M^a Angeles)

BESTELAKOAK

Baserri edo borda bat nahi genuke alokatu edo alokairuaren bidez.

si. Oiloak, pottokak eta baratza ditugu, beraz hektarea bat gutxienez behar dugu. Miren: 656742048; Alaitz: 658724075

Hemengo, Kiwiak eta babarrunak salgai. Tel. 943 364 937.

Behor bat salgai. Raid edo ibilaldietarako oso egokia. Izaera ezin hobea. Fisiko harrigarria. 620011889

Baserri bat eskaintzen da konpondu eta negozio bat jartzeko Lasarte inguruan. Tel. 626 728 463.

Jostekobi makina salgai. 943363201.

Indukziozko sua salgai. Bi urte ditu eta baldintza onetan dago. 943 361 109.

Zubietan 10.000 m. baino gehiagoko lursail bat alokatuko nuke. 635729637

Izotzetan ibiltzeko patinak salgai. 35 - 38 talla, merkeak. 649 482 775.

Ohe altu bat salgai. Mutilena eta koloretsua. Tel. 649 482 775.

Aurtengo eta hemengo babarrunak salgai, artoarekin batera eginda.

637974994

Telebista salgai, Sony Egoera onean, 80 euro. 653 014518

Pedalik gabeko bizikleta bat utzi nuen frontoian, ostiralean edo larunbatean. Decathlon-ekoa, kolore urdina, gorria eta txuria. 605 730 816.

Aginagako artoa salgai. Telefonoa: 687706363

Erosi gasolina sorgailu elektrikoa, berria erabili gabe, 80 euro. 689880561

Hemengo intxaurra erosiko nuke, deitu 634 409 888

Ezkontzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713 204 edo djlarra@usurbil.com

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. 667 232 300.

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi? 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

TRUKEAN, OPARI

2 ohe eta sofa bat behar ditugu premian den herriko familia batentzat. 687 348 223

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatean: 9:00-13:00 artean.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udalzaindaria.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	Lurralde Bus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulatoria.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Oa botika.....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arretoa.....	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiaro Kirolegia.....	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Guipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK Euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
NOAUA! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak abenduak 19-abenduak 29

Osteguna 19	ACHA-ORBEA	Hipodromo etor. 6. Lasarte
Ostirala 20	RODRIGUEZ	K. Nagusia 42 Lasarte
Larunbata 21	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Igandea 22	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Astelehena 23	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Asteartea 24	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32 Lasarte
Asteazkena 25	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32 Lasarte

Osteguna 26	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loloia kalea, 9 Lasarte
Ostirala 27	RODRIGUEZ K. Nagusia 42 Lasarte
Larunbata 28	ACHA-ORBEA Hipodromo etor. 6. Lasarte
Igandea 29	ACHA-ORBEA Hipodromo etor. 6. Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Garikoitz Aldabe. Perkaiztegiakalea 8 (Antziola). Hernani. 943 336 022
22:00 - 09:00

Agenda abendua

20 ostirala

- **Ikasleak kalera, gabon kantak abestera.** Informazioa gehigarri berezian.
- **Gabon kantuen entsegua Zubietan:** 19:00etan Kaxkapen.
- **"Koka kola eta barea"** antzerkia Aginaga-ko Eliza Zaharrean, 22:00etan.

21 larunbata

- **Pirritx, Porrotx eta Marimotots,** bi saio kiroldegian: 16:00etan eta 18:30ean. Sarrerak: 8 eurotan aldeztu aurretik Marijen eta Bordatxon. 9 euro egunean bertan (12 hilabete arteko haurrek doan).

22 igandea

- **Santo Tomas Azoka.** 11:30 Ixabel Agirresarobere ipuin kontaketa saioa Potxoenean. 12:00 Santo Tomas kantu-jira Sohutako lagunekin.
- **"Senideon besarkada herritarrei"** ekitaldia. 12:30ean Sutegin.

Santo Tomas azoka, aurten biharamunarekin

Eguberri jaien iragarle bilakatu da Santo Tomas azoka. Aurten, egutegiaren kapritxoak tarteko, egun handiaren biharamunean ospatuko dugu Usurbilen. Dena den, nobedadeak izango dira aurtengoan. Ikus NOAUA! Kultur Elkartean prestatu dugun egitaraua.

Abenduak 22, igandea

- Goizean zehar. Jan-edana: sagardoa, gaztainak, taloak, pintxoak dastatzeko aukera.
- NOAUA!ko postua: produktuen salmenta eta bazkidetza egiteko aukera.
- Perratze lanen erakustaldia.
- 11:30 Ixabel Agirresarobere ipuin kontaketa saioa, Dema plazan.
- 12:00 Santo Tomas eta kantu-jira.
- Ondoren, Nafartarrak taldekoen ekitaldia.
- Gero, sagardo eta babarrun txapelketetako sari banaketa.



Sagardoa dastatzeko aukera izango da.

Usurbilen Nahi Ditugu elkartearen ekitaldia

Igande honetan, bestelako ekitaldirik ere iragarri da. "Senideon besarkada herritarrei" izenburupean, Sutegin egingo dena, eguerdiko 12:30ean hasitako. "Urteak joan eta urteak etorri, bidelagun morroa dugu. Horrek sekulako laguntza eta indarra ekartzen digu eta hala aitortu nahi dugu igandeko ekitaldiaren bitartez", aditzera eman dutenez.

Datozenak

Gabon kantak abesteko hitzorduak abenduaren 24an

- **9:30 Aginagan:** eliza paretik irteera, etxez etxe. Antolatzaileak: aginagarra.
- **16:00 Zubietan:** gabon eskea, Artzabaletatik abiatuta. Antolatzaileak: Zubietan Lantzen.
- **17:00 Kaxkoan:** Parrokiako enbata irteera. Antolatzaileak: Parrokia.
- **17:30 Kaxkoan,** Olentzero jira: preso eta iheslarien eskubideen aldeko Olentzero, Mikel Laboa plazatik abiatuta. Antolatzaileak: Usurbilen Nahi Ditugu eta Kantu Taldea.
- **18:00 Santuenean:** Olentzeroren irteera auzo elkartetik. Antolatzaileak: Santuenea Elkartea.
- **19:00 Kaxkoan:** Olentzero taldeen topaketa frontoian, Olentzero eta Hator Hator kantatzeko.

Abenduak 26, 27 eta 28, Eguberrietako Parkea Oiardo kiroldegian

- Orduetia: 11:30-13:30 / 17:00-20:00.
- Nori zuzendua: 2-12 urte artekoentzat.
- Sarrera: doan.
- 2-6 urtekoentzat gunea: Marrazki txokoa, ludoteka, puzgarria...
- 6-12 urtekoentzat gunea: Ohe elastikoak, puzgarriak, tailerrak...

Gabon kantuen entseatzeko deialdia Zubietan

Ostiral honetan, abenduak 20, iluntzeko 19:00etatik aurrera Kaxkapen. Abenduaren 24rako Zubietan Lantzenek deitu duen gabon eskea prestatzeko izango da.

Gabon eskea, abenduaren 24koa, arratsaldeko 16:00etarako finkatu dute. Artzabaletatik hasiko dute eguberrietako kalejira.

Mus txapelketa, Benta tabernan

Ostiral honetan, abenduaren 20an, 22:00etatik aurrera. Honako sariok irabaz ditzakete, musean abilezia handiena erakusten duten jokalariek: lau kilo txuleta, bi kaxa langostino eta ardoa (1. saria); 3 kilo txuleta eta ardoa (2. saria); lau kilo saiheski eta ardoa (3. saria); edo lau kilo saiheski eta ardoa (4. saria). Argibide gehiagorako: 943 369 305.

JE JON ELORZA
IGELTSERITZA
OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, boxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78
20170
USURBIL

Santo Tomas eguna ospatzeko **deialdia**



**Babarrun eta
sagardo lehiaketa**



Abenduaren
igande goizez **22an**


·Ixabel Agirresarobe **ipuin kontalaria** (3 saio)

·Perratzalle gonbidatua

·Bizkarreko **idi-parea**

·**Gaztainak** eta pintxoak

·**Kantu jira 12:00tan Xiberutarrek lagunduta** Mikel Laboa plazatik abiatuta





Zorionak

Marije

Arropa denda



marijearropadenda